tolosaldeko eta leitzaldeko

hitza

Harpidedunei banatua ▸ Asteartea ▸ 2004-09-14 ▸ II. urtea ▸ 403. zenbakia

ANOETA ▸

Herrian lasai mugitzeko

Ekitaldiak eratu dituzte 16tik 22ra

Kultur tailerrak Tolosan eta Ibarran

HASIERA ▸ Izena emateko epea zabaldu dute bi herrietako kultur etxeetan

IKASGAIAK ▸ Antzerkia, dantza, argazkigintza, eskulanak... ikasteko aukera izango da ▸ 2-3

Txindoki atzean duela. J.SAIZAR

AMEZKETA ▸

Euskara ikasteko gogoa duen apaiz-langilea

Cartagenatik etorri da uda honetan Isidoro Galan ▸ 5

IÑIGO TERRADILLOS

JOXE GABIRONDO ▸ EUSKADIKO TRONTZALARI TXAPELDUAN

«Eguneroko lana dago hor, esfortzu handia eskatzen duen ariketa baita»

Igor Esnaola legorretarrarekin batera irabazi du txapela ▸ 6

IRUÑA JATETXEA

✆ 943 11 98 28 • Amaroz auzoa •TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZArekin elkarlanean

Gure harpidedunen artean IRUÑA JATETXEAK oparitutako 2 lagunentzako afaria eder bat zozketatuko dugu.

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN!

IBARRA - TOLOSA ▸ KULTUR TAILERRAK

Kultura dantzan

Tolosako eta Ibarrako udalek 2004 - 2005 ikasturteko kultur tailerren eskaintza egin dute; izen-ematea zabalik da bi herrietako kultur etxeetan

L. MONTES - I. ETXEBESTE

Tolosako eta Ibarrako udalek egin dute honezkero 2004-2005 ikasturteko kultur lantegien eskaintza. Elkarlanean jardun dute aurten ere, eta batean eskaintzen ez direnak bestean egin ahal izango dituzte ikasleek; argazkigintza eta pintura, bestalde, bi herrietan egin ahal izango da, ikastaro horien eskaintza urtero-urtero handia izaten delako. Hortaz, ikasturte berrirako kultur lantegiren batean parte hartu nahi dutenek Tolosako eta Ibarrako kultur etxeetara joan beharko dute izena emateko.

Iaz ere matrikulatuta egon, eta berriro ikastaroren batean parte hartu nahi dutenek aste honetan eman beharko dute izena Tolosan. Ikasle zaharrentzat ostirala bitarte izango da, izan ere, matrikula epea zabalik. Ikastaroetan izena ematerakoan lehentasuna izango dute ikasle zaharrek, eta matrikula hilaren 17a bitarte egiten ez duenak galdu egingo ditu eskubide horiek. Ikasle berriek, ordea, hilaren 20tik 24ra izango dute izena emateko aukera. Ibarran, berriz, ez dute bereizketarik egiten ikasle zaharren eta berrien artean, eta guztiek hilaren 13tik 27ra eman beharko dute izena. Tolosako Antonio Maria Labaien eta Ibarrako Benito Izagirre kultur etxeetan egin behar da matrikula, goizez edo arratsaldez, ohiko ordutegian.

Iazko eskaintzarekin alderatuz, ikastaro berak izango dira aukeran bai Tolosan bai Ibarran. Batzuetan egun aldaketak izan dira; baina, orokorrean, ordutegiak eta egunak beretsu mantendu dituzte. Ibarran, dena den, badago aldaketarik. Iaz lau ikastaro berri antolatu zituen Udalak; horietako batek, henna tatuaienak, oso harrera ona jaso zuen, eta aurten errepikatzeaz gain, luzatu ere egin dute. Berrogei ordukoa izan zen iaz; eta aurten, berriz, ikasturte osoa iraungo du.

Beste hainbat ikastarok ere arrakasta izan zuen iazkoan. Baletak, esaterako, ehunka haur eta gazte biltzen ditu urtero. Hori ikusita, iaz adinaren arabera taldeak osatzeari ekin zion Tolosako Udalak. Jendearen aldetik erantzuna ona izan zelako, gauza bera egin du ikasturte berrirako. Hortaz, hilaren 13tik 27ra dago zabalik matrikulazioa.

XEHETASUNAK ▸

▸ **Ikasle zaharrak.** Iazko ikasleen matrikula epea atzotik hilaren 17ra (ostirala) izango da Tolosan. Lekua gordeko zaie epe horretan, baina epe horretatik kanpo ikasle berrien eskubide berak izango dituzte.

▸ **Ikasle berriak.** Hilaren 20tik 24ra matrikulatuko dira Tolosan, taldeetan geratu diren lekuen arabera. Eskaerak lekuak baino gehiago direnean, interesatuen zerrendak osatuko dira eta matrikula eskubidea zozketa bidez erabakiko da. Kasu hauetan, epea beste astebete luzatuko da. Ibarran,

▸ **Gutxieneko taldeak.** 8 matrikula baino gutxiagoko taldeak bertan behera gera daitezke.

▸ **Izen-ematea.** 09:30-13:30 eta 17:00-19:00 (ostiraletan, goizez bakarrik) Tolosako Kultur Etxeko bulegoan. Telefonoak: 943 67 03 83 eta 943 67 03 88. Ibarran, Benito Izagirre kultur etxean. Telefonoa: 943 67 03 99. Matrikula egiteko, matrikula orria bete behar da eta ordainagiria aurkeztu.

▸ **Familia ugariak.** %50eko murrizpena izango dute ikastaro guztietan Tolosaldean erroldatutako familia ugariek. Agiri eguneratuaren fotokopia aurkeztea ezinbestekoa da beherapena egiteko. Ibarran, %10eko deskontua egingo zaie gazte-txartela dutenei.

▸ **Ordainketa zatikatua.** Nahi izanez gero, bi zatitan egin daiteke ordainketa: lehena matrikula garaian eta bestea abenduko lehen hamabostaldian. Ezinbestekoa da aurreko urteko tarifa osoa ordainduta edukitzea.

▸ **Ikasturte osokoak.** Ikasturte osoko iraupena duten ikastaroetan, lekua egonez gero urtarriletik aurrera interesatuek matrikula osoaren 2/3 ordaindu beharko dute eta martxotik aurrera 1/2.

▸ **Bajak.** Ikastaroa hasi aurretik baja eskatzen dutenek ikastaro osoaren prezioko %20 jasotzeko eskubiderik ez dute izango. Abenduaren 15a baino lehenago baja adierazten dutenek (nahitaezko arrazoiengatik) bigarren kuota ez ordaintzeko eskubidea izango dute.

HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu
943 30 43 46
Edozein kexa, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai

Pintura ikastaroa Ibarran eta Tolosan eskaintzen dute. Argazkian, Ibarrako ikasleak iazko ikasturtean, pintatzen. DANI GIBELALDE

mabi talde izango dira 2004-2005ean.

Ibarran, Benito Izagirre kultur etxean emango dituzte eskolak. Tolosan, aldiz, Kultur Etxean eta Pablo Gorosabelen eskainiko dituzte ikastaroak. Hain zuzen ere, 4 eta 7 urte bitarteko balet ikasleak Kultur Etxean ariko dira; 8 urtetik aurrerakoek, eta puntak 1 eta puntak 2 ikastaroak jasoko dituztenek, berriz, Gorosabelen jardungo dute. Dantza garaikideko ikasleak ere —oinarrizko mailakoak eta dantza garaikidean sakondu nahi dutenak— Gorosabelen ariko dira. Gainerako ikastaro guztietako partaideak Antonio Maria Labaien kultur etxean izango dira, betiko moduan.

Urtero, 300dik gora ikasle biltzen dituzte tailerrek. Iaz, adibidez, 300 bat lagunek eman zuten izena Tolosako ikastaroetan, eta Ibarran 100 ikasle baino gehiago aritu ziren. Kopurua, gainera, igotzen doa urtetik urtera, eta kultur etxeetako leku arazoa areagotuz doa, hala.

Tarifa murrizketak

Tolosaldeko herritar guztiek tarifa bera ordainduko dute aurten ikastaroetan izena emateagatik. Hortaz gain, hainbat tarifa murrizketa ere jaso ahal izango dira, baldintza batzuk beteta.

Familia ugariek, esaterako, %50 gutxiago ordainduko dute tailerretan parte hartzeagatik. Horretarako, agiri eguneratua aurkeztu behar da kultur etxeetan. Ibarran, gainera, gaztetxartela dutenei %10eko deskontua egingo diete.

KULTUR TAILERRAK TOLOSAN ▸

Ikastaroa	Adina	Ordutegia	Egunak	Tarifa
Antzerkia	Helduak	19:30 - 21:30	Astelehena eta asteazkena	123,60
Argazkigintza	Helduak	18:30 - 21:30	100 ordu	165,73
Baleta	4 urte	17:30 - 18:30	Asteartea eta osteguna	101,25
	5 urte	17:30 - 18:30	Astelehena eta asteazkena	101,25
	6 urte	18:30 - 19:30	Asteartea eta osteguna	101,25
	7 urte	18:30 - 19:30	Astelehena eta asteazkena	101,25
	8 urte	17:15 - 18:15	Asteartea eta osteguna	101,25
	9 urte	17:15 - 18:15	Astelehena eta asteazkena	101,25
	10 urte	18:15 - 19:15	Asteartea eta osteguna	101,25
	11-12 urte A	18:15 - 19:15	Astelehena eta asteazkena	101,25
	11-12 urte B	19:15 - 20:15	Astelehena eta asteazkena	101,25
	+ 13 urte	19:15 - 20:15	Asteartea eta osteguna	101,25
	Puntak 1	17:30 - 18:30	Ostirala	37,18
	Puntak 2	18:30 - 19:30	Ostirala	37,18
Dantza garaikidea	Oinarrizkoa	20:15 - 21:45	Astelehena eta asteazkena	138,43
	Aurreratua	20:15 - 21:45	Asteartea eta osteguna	138,43
Egurra lantzea	Helduak	15:00 - 17:00	Asteartea eta osteguna	138,43
Ehoziri lana eta bainika	Helduak	16:00 - 20:00	Asteazkena	138,43
Pintura - marrazketa	Helduak	10:30 - 12:30	Astelehenetik ostegunera	138,43
		15:30 - 17:30	Astelehenetik ostegunera	138,43
		18:30 - 20:30	Astelehenetik ostegunera	138,43
Pintura - eskulanak	6 - 10 urte	17:30 - 18:30	Astelehena eta asteazkena	101,25
	10-14 urte	17:30 - 18:30	Asteartea eta osteguna	101,25
Keramika	Helduak	10:30 - 12:30	Astelehena eta asteazkena	138,43
		18:30 - 20:30	Astelehena eta asteazkena	138,43

KULTUR TAILERRAK IBARRAN ▸

Ikastaroa	Ordutegia	Egunak	Iraupena	Tarifa
Aretoko dantzak	18:00 - 20:00	Osteguna	Ikasturte osoa	90,35
	20:00 - 22:00	Osteguna	Ikasturte osoa	90,35
Argazkigintza				
Hastapena	18:30 - 21:00	Asteartea eta ostirala	Urritik otsailera	90,35
Sakonketa	18:30 - 21:00	Asteartea eta ostirala	Otsailetik ekainera	90,35
Egur taila	17:00 - 19:00	Asteartea eta osteguna	Ikasturte osoa	112,39
	19:00 - 21:00	Asteartea eta osteguna	Ikasturte osoa	112,39
Tiffany, pintura telan eta egurrean, jaiotzak, errusiar portzelana	17:30 - 19:30	Asteazkena	Ikasturte osoa	90,35
Errestaurazioa	19:00 - 21:00	Astelehena eta asteazkena	Ikasturte osoa	112,39
Lorazaintza	17:00 - 19:00	Asteartea	Ikasturte osoa	90,35
Masaia	18:30 - 20:30	Osteguna	Ikasturte osoa	90,35
Pintura	15:30 - 17:30	Asteartea eta osteguna	Ikasturte osoa	112,39
Henna tatuaiak	18:30 - 20:30	Ostirala	Ikasturte osoa	90,35
Saskigintza	18:30 - 20:30	Ostirala	Ikasturte osoa	90,35
Larrua	18:30 - 20:30	Astelehena	Ikasturte osoa	90,35

BERRIKUNTZAK

Ibarran, henna tatuaiak egiteko ikastaroa 40 ordukoa izatetik ikasturte osokoa izatera pasatu da

LEKUAK

Ibarran, Benito Izagirre kultur etxean izango dira eskolak; Tolosan, Antonio Maria Labaien kultur etxean eta Gorosabelen

TARIFAK

Tolosaldeko herritar guztiek tarifa bera ordainduko dute aurten ikastaroetan parte hartzeagatik

iragarki laburrak ▸

Tolosa. Emeterio Arresen, San Frantzisko aldera pisu ederra garaje eta trastelekuarekin.
Tolosa. Agintari kalean, bi logela, sukaldea, egongela eta komuna dituen etxebizitza salgai. Sartzeko moduan. Berokuntzarekin. 142.440 euro.
Tolosa. Alde Zaharrean, 2 logela, erabat berritua, ezinhobeto, igogailua jartzeko aukera.
Tolosa. Korreo kalean, 2 logelako etxebizitza salgai, estreinatzeko erabateko berrikuntza egin ondoren.
Tolosa. Araba etorbidea. Pisu ederra, garajea eta trastelekuarekin. Berokuntzarekin. Bista ederrak eta eguzkitsua.
Tolosa. Pablo Gorosabel kalean, 12 urte dituen eraikuntzan, pisu altua, igogailu eta berokuntzarekin.Garajea aukeran.
Tolosa. Gernikako Arbolako lorategian, 108 m2. Pisu ederra salgai. Aukera handiak.
Tolosa. Larramendi, pisu ederra garajearekin salgai.
Tolosa. Zabalarreta parkera ematen duen 120 m2-ko pisu ederra salgai. Informazio gehiago: Ernio. 943 65 50 37.
Tolosa. Iurramendi auzoan, Sam-eko etxe atxikia salgai, lorategi eta jardinekin. Ikustekoa! Informazio gehiago: 943 65 50 37.
Ibarra. Julian Gaiarren. Berritutako etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna. Berogailuarekin. Guztiz kanpoaldera.
Ibarra. Euskal Herria kalean hainbat etxebizitza salgai 72.735 eurotik aurrera.
Ibarra. Eraikuntza berriko 2 logelako etxebizitza salgai, garajea aukeran.
Berrobi. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Pisua, trastelekua eta garajearekin.
Berrobi. Bizitzera sartzeko moduko pisua. Berogailuarekin. Prezio ona! 142.440 euro.
Berrobi. Bi logelako pisu merkea. Toki lasaia. 141.839 euro.
Irura. 2 logelako etxebizitza; bizitzera sartzeko moduko pisua.
Villabona. Kale Nagusian hainbat etxebizitza salgai. 132.223 eurotik aurrera.
Andoain-Urnieta. Hainbat etxebizitza berri eta 2. eskukoak saltzen dira.
Pabilioi eta lokaletan. Aukera handia; salmentan eta alokairuan.
Peñiscolan. Apartamentu ederra salgai, terraza ederrarekin.

ANOETA ▸ INGURUMENA

Mugikortasun Iraukorreko Astea antolatu dute Anoetan

Lehen ekintzak ostegunean izango dira; anoetarrek izango dute zertan parte hartu irailaren 22a bitarte herrian

GARAZI AZKUE

Anoetako Udalak eta Ikastolak Mugikortasun Iraunkorraren Astea eratu dute irailaren 16tik 22ra bitartean. Aste honen baitan, ekintza eta ikuskizun ugaritan parte hartzeko aukera izango dute anoetarrek.

Ostegunean hasiko dira ikustekoak. Mugikortasun Asteari hasiera emateko, Ikastolako ikasleek mural bat osatuko dute pasa den urtean Autorik Gabeko Egunean burutu ziren jardueren argazkiekin.

Baina Anoetan ezezik, Tolosaldeko beste herri askotan ere Mugikortasun Iraunkorraren Asteari ekingo diote; guztiek batera, bizikleta martxan parte hartzeko aukera izango dute igandean. Tolosa-Zizurkil-Tolosa ibilbidea egingo dute eta herri bakoitzean, ekintza bat burutuko dute. Ibilbidearen hasieran kamisetak banatuko dituzte eta Tolosara iristean, hamaiketakoa izango dute parte hartzaileek.

Autorik gabeko eguna irailaren 22an izango da.

Egun hauetako ekintzez gain, Angel Cuerdoren bidaietako argazkien erakusketa jarri dute udal areto nagusian. Ostegunean irekiko dute eta irailaren 22a bitarte egongo da zabalik, astelehenetik ostiralera 18:00etatik 21:00etara.

Eta Ikastolako ikasleek, trafikoaren eta zarataren neurketak egingo dituzte astean zehar. Ikastolako sarreran eta farmaziaren aurrean egongo dira irailaren 15ean, 22an eta 28an, goizez eta arratsaldez.

Iazko autorik gabeko eguna Anoetan. ALOÑA IPINTZA

EGITARAUA ▸

IRAILAK 16, OSTEGUNA

▸ Ikastolako ikasleek murala egingo dute.

IRAILAK 18, LARUNBATA

18:00. Umeentzat ikuskizuna: *Korri, salto eta brinko ezin geratu.*

IRAILAK 19, IGANDEA

09:30. Bizikleta martxa: Tolosa-Zizurkil-Tolosa.

IRAILAK 21, ASTEARTEA

▸ Joseba Agirrezabalarekin saio praktikoa Ikastolan, arratsaldez.

IRAILAK 22, ASTEAZKENA

▸ Ikastolan hainbat ekintza egingo dira egun osoan zehar: mugikortasun tailerrak, idazlanak, ginkana...
19:30. Angel Cuerdoren hitzaldia diapositibekin udal areto nagusian.

VILLABONA ▸ GIZARTEA

Aparkatutako autoen zaintza gogortuko dute

Aparkaleku berria zabaldu dute; Txerminen gaizki aparkatutako autoak zainduko dituzte

Erniobea kaleko atzeko aldea. HITZA

ERREDAKZIOA

Kurtso hasierarekin batera, eta Txerminen autoentzako aparkalekua prestatu dela aprobetxatuz, Villabonako udaltzaingoak aparkalekuen kontrola hareagotu egingo duela jakinarazi du.

«Udala jakitun da Txermin-Osasun zentroaren inguruneak ibilgailu asko jaso ohi dituen gunea dela eta aparkaleku gehiago behar dituela». Hori dela eta, Berria 1eko kamioien aparkalekuko atzeko aldea autoak aparkatzeko prestatu dute. Aparkatzeko marrak margotu dituzte, argiteria hobetu dute eta Txermin 3 eta Ikastolaren atzeko aldearekin lotzen duten oinezko bideak egin dituzte.

Udaltzaingoak argitu duenez, hori izango da Txermin-Osasun Zentroaren guneak jaso ohi dituen ibilgailu askorentzat gomendatutako aparkalekua.

Honenbestez, aparkaleku hau prestatuta, Udaltzaingoak, Txerminen, eta batez ere Erniobea kalearen atzeko aldean, hots, Altzingo iturriaren kalean gaizki aparkatutako autoen zaintza indartuko du.

Alde honetan, aipatutako kalean margotuta dauden marra horian autorik ez aparkatzea zainduko du Udaltzaingoak hemendik aurrera, «ibilgailuak bi norabideetan ibiltzea eta askotan behar bezala aparkatuta daudenak ateratzea eragozten duelako», Udaltzaingoaren esanetan.

VILLABONA ▸ KIROLA

Behar-Zana elkarteko pilota eskola hastear da

Bihar hasiko dira entrenamenduak 17:30ean; larunbatean ere izango dira

G. AZKUE

Villabonako Behar-Zana kirol elkarteak, urtero moduan, gaztetxoentzat pilota eskola jarriko du martxan ikasturte berriarekin batera.

Entrenamenduak aste honetan bertan hasiko dira. Bihar, 17:30ean hasiko dira 10 urte bitarteko haurrak; 12 urte bitarteko gaztetxoen txanda berriz, 18:30ean izango da.

Asteazkenetako entrenamenduaz gain, larunbatetan ere izango dituzte saioak. Egun horietan, 9:30etik 11:00etara bilduko dira 10 eta 12 urte bitarteko haurrak; 10 urte bitartekoek, berriz, 11:00etatik 12:00etara izango dituzte entrenamenduak.

ALBIZTUR ▸

KZgunean ikastaroak irailean zehar

Irailaren hasieratik bi ikastaro daude aukeran doan: Nagusiweb (hasierakoa, 10 ordukoa, 13an edo 20an hasita) eta Internet KZgunean (osatuagoa, 20 ordukoa, 27an hasita). Ikastaro hauek arratsaldez izango dira. Izena Kultur Etxeko 2. solairuan edo 943 65 06 85 telefonoan 16:00etatik 20:00etara eman.

ALEGIA ▸

Babarrun-jaterako txartelak salgai dira

Datorren igandean, irailak 19, izango da Langaurre Eguneko babarrun-jatea eta antolatzaileek txartelak salgai jarri dituzte Kultur Etxean 09:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 21:00etara, irailaren 17a bitarte. Txartel hauek eskuratzeko, helduek zortzi euro ordaindu beharko dituzte eta hamabi urte bitarteko haurrek, berriz, bost euro.

ANOETA ▸

Aldarrikapen eguna Ernion, datorren igandean

AHT Gelditu elkarlanak, Anoetarrok Auzolanean herri plataformak eta Gazte Asanbladak igandean Ernion bere aldarrikapenak egitera deitu dute: AHTren aurka, herri borondatearen alde, apartheidaren aurka «zinegotzi lapurretarik ez» eta euskal presoen eskubideen alde. Irteera 9:00etan izango da plazatik eta 19:30ean afari-merienda Gaztetxean. Izena Itzuli tabernan eman behar da asteazkena baino lehen.

IRURA ▸

Memoriako tailerra zaharren biltokian

Gaur 17:00etatik 18:00etara memoria tailerra antolatu dute bost zentzuen inguruan Irurako dinamizatzaileak, Zaharren Biltokiak eta Aulas Kutxak. Ekitaldi hau urtean zehar antolatutako egitarauan sartzen da eta bereziki adineko jendea dago gonbidatuta bertan parte hartzeko.

AMEZKETA ▸ EUSKARA

Isidoro Galan Amezketan, egun batzuk pasatu dituen etxean. J.SAIZAR

Cartagenatik euskara ikastera

Isidoro Galan apaizak hiru urte daramatza euskara ikasten; euskal presoen aldeko komiteetan ari da lanean

JOXEMI SAIZAR

Cartagenatik (Murtzia-España) euskara ikastera etorri da uda honetan Isidoro Galan Carretero apaiza. Harrigarria, ezta? Nondik nora asmo hori? Abuztuan, Amezketan lagun batzuen etxean egindako egonaldia aprobetxatuz, HITZAK berarekin mintzatzeko aukera izan zuen eta horren arrazoia eta bere bizitza azaldu zion.

«Gaztetan beti esaten nuen Espainiako hiru hizkuntza minoritarioak ikasiko nituela, kultura horiek errespetatzen ditudalako. Normalean, alderantzizkoa esaten da: zertarako ikasi horiek denak elkarren artean ulertuta?», dio Isidoro Galanek. Urte askotan zehar Cartagenan zeuden euskal presoekin eta bere senideekin harreman estua izan duela esan behar da eta horrek ere eragina izan duela.

«Duela lau bat urte hasi ginen Bakarka metodoarekin hango lau lagun. Batek urtebetera utzi zuen, baina besteok jarraitzen dugu», azaltzen du. Aurtengo abuztuan Lazkaoko barnetegian izan da eta asteburuetan Amezketan izan da preso baten senideen etxean. «Oso gustura aritu naiz. Irakasle eta tutore gazteak ditut, oso integratuak. Euskara oso logikoa da, garrantzitsuenetik hasten du esaldia», eransten du. Urtero barnetegira etortzeko asmoa azaldu du Galanek. Ikaskideak ere leku askotakoak izan ditu: Madrilen bizi den Zaireko bat, Gasteizen bizi den kubatarra, Miamiko kolonbiarra, alemaniarra, euskal jatorriko argentinarra...

Euskal presoen alde lanean

Lehen esan bezala, Euskal Herriarekiko Elkartasun Komiteetan ari da lanean 68 urteko apaiz hau. Espainia osoan zehar daude komite hauek eta Cartagenakoa 1987an sortu zen, euskal presoen sakabanaketarekin hara lehenak eraman zituztenean. Ezkerreko jendea da partaide eta gauza asko egiten ditu: presoen bisitak antolatu, senideei lagundu, Europako Legebiltzarrerako lehen hauteskundeetan Txema Monteroren kanpainan lagundu...

Berarekin batera, komitean lanean aritu zen Mariano Gonzalez Manglada apaizaren lana goraipatu nahi du Galanek. «Asko maite dute euskal presoek. Duela zortzi urte hil zenean errautsak Cartagenako itsasoan eta Urbinan (Araba) zabaldu genituen», dio. Mariaren etxean jaten dute hara joandako denek eta bi apaizek. «Mariak ere oroitarria behar du Euskal Herrian, lan asko egin duelako», dio. Herrera de la Manchako kartzelara egiten ziren martxan ditu gogoan: «hotz harekin, kontrolekin... eta hala ere 10.000-12.000 lagun biltzen ginen».

Komite hauek hauek presio eta jarraipen handia jasan zuten poliziaren aldetik eta partehartzea asko gutxitu zen. Bestalde, Cartagenako kartzela 2002an itxi eta hango presoak Villenako makrokartzelara —Alacant— eraman zituzten. Hamalau urte horietan makina bat euskal preso izan da eta denekin harremana izan du Isidoro Galanek. «Harremana mantentzen dut eta urtero Euskal Herrira etortzen naiz bisitan», dio.

Nondik dator presoei eta senideei laguntzeko joera hori? Istorio luzea du apaiz honek. Cuencako herri txiki batean —Casas de Haro— jaioa, 15 urterekin jesuita joan zen eta apaiz-langile mugimenduko kide izan da bizitza osoan. 1968tik Cartagenan bizi da, langile auzo batean. «Nazarateko Jesus ez zen apaiza izan, besteak bezalako gizona baizik. Langile munduan sartu eta hor egin dut lan», dio Galanek. Eraikuntzan aritu da lanean, apaiz izaten utzi gabe. Sindikalgintza eta politika mundua ere gertutik bizi izan du, atziloketak ere jasanez. Aurten jesuita izaten utzi du, baina apaiz izaten jarraitzen du, «eukaristia etxean, lagun artean, ospatzen».

TELEFONOAK ▸

LARRIALDIAK

▸ **112**

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaldea. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldea. Osasun etx: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Orendain. Medikua: 65 55 95
Tolosa.
▸ Anbulatorioa, larrialdi:461111
▸ San Esteban: 00 68 00
▸ Gernikako arbola: 00 69 00
▸ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
▸ Udaltzaingoa: 67 58 58
▸ DYA: 67 25 36
▸ Gurutze Gorria: 67 48 88
▸ Ertzaintza: 53 88 20
Villabona-Aiztondo. Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

GARRAIOAK
▸ Renfe Tolosa: 65 28 89
▸ Donostiako autobusa: 36 17 40
▸ Taxia: 67 04 20
▸ Taxia (Leitza): 608 873016

GUARDIAKO FARMAZIA
Gaur. Zein, helbidea, herria. Telefono zenbakia
Zein, helbidea, (Leitza). Telefono

TOLOSALDEKO HITZA
Publizitatea. 661 67 88 18. tolosaldean_publi@tolosaldekohitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33. tolosa@tolosaldekohitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22. villabona_aiztondo@tolosaldekohitza.info
Anoetaldea. 687 41 00 22 anoetaldea@tolosaldekohitza.info
Ibarraldea. 687 41 00 32. ibarraldea@tolosaldekohitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34. alegialdea@tolosaldekohitza.info
Leitzaldea. 687 41 01 18. leitzaldea@tolosaldekohitza.info

iragarki laburrak ▸

ETXEBIZITZAK
Tolosa. Pisua salgai Korreo kalean. Egongela, sukaldea, bi logela eta komuna. Berrituta, estreinatzeko. 615 71 37 62.

LANA
Villabona. Neska bat behar da Villabonako taberna batean lana egiteko 7:00etatik 13:00etara. 650 48 79 34.

BESTERIK
Zakurkumeak. Gorbeako bi artzai zakurkume opari. 943 69 41 10, 943 69 37 31.

GAZTELU ▸ KIROLAK

Gabirondo eta Esnaola dira trontza txapeldun berriak

Larunbatean, Euskadiko Txapelketako finalean lortu zuten txapela Donostian

IÑIGO TERRADILLOS

Joxe Gabirondo gazteluarra eta Igor Esnaola legorretarra dira pasa den larunbatetik Euskadiko txapeldun berriak trontzan. Izan ere, larunbatean jokatu ziren Donostian Euskadiko Txapelketako finalak eta modalitate horretan beraiek izan ziren azkarrenak egurra ebakitzerako orduan.

11 minutu eta 54 segundo behar izan zituen bikoteak lan guztia burutzeko. 22 epai izan ziren guztira, 16 etzandako enborretan eta 6 zutikakoetan. Lana bukatzen bigarren Barberena anaiak izan ziren, 12 minutu eta 57 segundorekin eta hirugarren, berriz, pasa den urteko txapeldunak, Eugenio eta Iñaki Orbegozo, 14 minutu eta 11 segundo behar izan zituztelarik.

Bigarren urtea da gazteluarra eta legorretarra txapelarekin egiten direla, orain bi urte ere beraiek irabazi baitzute Euskadiko Txapelketa.

Baina ez da hau izan lortu duten garaipen bakarra. Urtero Zazpi Herrialdeetako Txapelketa jokatzen da, zazpi probintzietako bi talde onenek parte hartzen dutelarik bertan. Azkena, uda honetan, abuztuaren 21ean jokatu zen Ozetan, Araban. Esnaolak eta Gabirondok trontzan garaipena lortu zuten eta taldeka lortutako puntuen arabera, berriz, gipuzkoarrak bigarren geratu ziren.

Bi lagunek egurra ahalik eta azkarren ebakitzea izaten da trontzalariaren lana eta helburua. Lan hau burutzeko erreminta trontza edo zerra izaten dute, mutur banatik eraginez egiten delarik ebakitzea.

Zerra hauekin izaten da arazo bat baino gehiago hainbat talderen artean aldea izaten delako. Trontza desberdinak izaten dira merkatuan eskura, eta aukeratzen denaren arabera ebakitze hori arinagoa eta azkarragoa izan daiteke.

Araudiak ez du zehazten erabili beharreko materiala modalitate honetan, eta ondorioz, txapelketaren bat jokatu ostean nabaritzen da bikoteek erabiliko zerretan aldea dagoela, lortutako emaitzetan tarte handiak izaten baitira. Denen baldintzak berdinak ez direlako ezadostasunak sortzen dira.

JOXE GABIRONDO ▸ TRONTZALARIA

«Urte osoko lana eta gero oso gustura hartzen dira sari hauek»

I. TERRADILLOS

Joxe Gabirondo gazteluarrak eskarmentu handia du herri kiroletan. Lehenik segan eta ondoren trontzan garaipen ugari lortuak ditu. Azken garaipena pasa den larunbatean izan zuen gazteluarrak Donostian; bertan, berak eta Igor Esnaola taldekideak Euskadiko Txapelketako finalean jokatu zuten eta txapela eta garaikurra eraman zituzten etxera lan bikaina egin eta gero.

Lan asko egongo da garaipen berri honen atzean ezta?

Eguneroko lana dago hor. Nire taldekidea Igor eta ni, bi egunetik behin elkartzen gara entrenatzeko eta honetaz gain bakoitza bere kabuz aritzen da, gorputza prestaturik izan behar da, esfortzu handia eskatzen duen ariketa izaten baita trontzarena, gainera ez baduzu behar adina entrenatzen ez zara besteen parean ibiliko.

Euskadiko txapeldun berriak zarete, baina hau ez da zuen lehen txapela.

Orain bi urte ere lortu genuen txapelarekin egitea, eta pasa urtean hirugarren izan ginen.

Baina badira gehiago zure etxean ezta?

Duela hamasei urte segan hasi nintzen eta zazpi urtez aritu ondoren, hiru txapelketa nagusi irabazi nituen. Utzi egin nuen sega denbora batez, eta urtebete pasatu ondoren trontzarekin hastea pentsatu nuen.

Herri-kirolak berriro ere indarra hartzen ari al dira?

Baietz esango nuke. Gazte askorekin neurtzen naiz ni herriko plazetan eta atzetik ere hainbat gazte datoz. Trontzan, dezente dagoela esan daiteke eta gainera nahiko banaturik daude, ez guztiak eskualde batean. Hala ere gazteen premia egon badago, azken batean beraiek izango baitira gure herri kirolari jarraipena eman beharko diotenak.

IBARRA ▸

Ibarrak galdu egin zuen ligako lehen partida

Partida osoan aurkakoak mendean hartu arren Ibarrak ez zuen irabazterik izan

I. TERRADILLOS

Larunbatean jokatu zuen Ibarra areto-futbol taldeak Lehen Maila A ligako lehen partida etxean, Belabieta kiroldegian. Jendearen babesa nabari zuten bertakoek, asko izan baitziren partida ikustera eta taldeari animoak ematera gerturatu zirenak.

Gasteizko Atenea taldearen aurka neurtzea egokitu zitzaien ibartarrei; arerio gogorra zen, beraz, lan handia egin beharko zuten partida irabazteko.

Lehen eta bigarren zati osoan mendean hartu zituzten gasteiztarrak etxekoek, baina hala eta guztiz ere, hau ez zen azken markagailuan nabarituko.

Etxekoak behin eta berriz saiatu arren ez zuen baloiak aurkako sarea aurkitzen eta gasteiztarrek ekin zioten golak sartzeari. 0-1 lehendabizi eta 0-2 ondoren, etxekoek izandako akatsak aprobetxatuz aurretik jartzea lortu zuen Ateneak.

Atsedenaldira emaitza honekin heldu ziren; bigarren zatian gehiago ziren etxekoak, baina golik ez zen lortzen. Faltaz sartu zuen Ibarrarentzat lehendabizikoa Pradosek. Gasteiztarrek hirugarrena sartu zuten partida amaitzeko minutu bat falta zenean eta Hautsik etxekoentzat 2-3ko azken emaitza utzi zuen markagailuan. Aurkako taldeak baino hobeto jolastu arren, puntuak ezin izan zituzten eman Ibarrakoek.

iragarki laburrak ▸

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.:616 93 17 88
Inmobiliaria ETXESAGASTI

Ordizia. 50m2-ko etxebizitza, 2 logela, berrikuntza egin berria. Estreinatzeko. 25.000.000 pezeta. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56

Alegia. Eraikuntza berria, duplexak eta etxebizitzak 34.500.000 pezetatik aurrera. Informazioa: Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Altzo. Erabat berritua dagoen etxebizitza salgai, 2 solairukoa, solairu bakoitza 85m2-koa. 707 m2-ko lursaila du. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. 185 m2-ko etxebizitza zoragarria. Egongela, sukaldea-jangela, 5 logela, 2 bainugela eta trastelekua. Inmo Etxesagasti 943 69 68 56.

Villabona. 75 m2-ko etxebizitza salgai, 3 logela, aparteko egongela-sukalde «amerikarra», bizitzera sartzeko moduan. 34.000.000 pezeta. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. Oso ondo kokatua dagoen garaje itxia salgai. Eraikuntza berrikoa. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56..

Ibarra. 69 m2-ko etxebizitza, trastelekua, egongela, sukaldea eta 2 logela. Eraiki berria, kanpokaldera begira. 4.pisua igogailuarekin. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Ibarra. 90 m2-ko etxebizitza, egongela, 2 logela, 2 bainugela eta jantzigelarekin. Eguzkitsua. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Ordizia. 50 m2-ko etxebizitza, 2 logela, berrikuntza egin berria. Estreinatzeko. 25.000.000. Ezin hobeto. Inmo Etxesagasti. 94369 68 56.

Ordizia. 85 m2-ko etxebizitza. Egongela, sukalde handia, 3 logela, bainugela eta trastelekuarekin. Berritu berria, altzariz hornitua. 29.000.000 pezeta. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Lizartza. Baserri oso polita, 155 m2-ko 2 solairu ditu, berritua, 1.800 m2-ko lursailarekin. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Lizartza. 3 solairu dituen eraikina salgai, berrikuntza behar du.Inmo Etxesagasti. 943 69 86 56.

Eskari handiagatik. Nekazal lursailak, urbanistikoak. Saltzeko eta alokatzeko. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56

LEITZA ▸ INGURUMENA

Harrobien inguruan herri kontsulta egitea erabaki du Udalak, eskaera onartuz

Galdera ere aukeratuta dago, ostiralean burututako batzarraz geroztik; UPN taldekoek alde egin eta Larrain HPko kideak mahaian jartzen saiatu dira

Herri Kontsultaren Aldeko Taldeak 442 sinadura aurkeztu zituen Udalean eskaera horrekin. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Udalak, harrobiaren gaiarekin herri kontsulta egitea onartu zuen, Herri Kontsultaren Aldeko Taldeak aurkeztutako 442 herritarren eskaerari aldeko erantzuna emanez.

Lehengo ostiralean burutu zen udal batzarrean, herri kontsultarako galdera zein izanen den ere aukeratu zuten, «Leitzan harrobirik bai ala ez?», hain zuzen ere. Behin erabakia hartuta, hurrengo urratsa deialdia egiteko Estatuaren baimena eskuratzea da, beti ere 27/2002 Foru Legeak dioenaren arabera. Jakina denez, prozedura guztia, urratsez urrats, arestian aipatutako lege horretan oinarrituz burutu du, Herri Kontsultaren Aldeko Taldeak, modu horretako aurrekaririk gabeko ekimen honetan. Edozein moduz, erabakia ez zen eztabaidarik gabe hartutakoa izan, hautetsiek ez ezik, batzar aretoan bildu ziren herritarrek ere parte hartu baitzuten.

Ekimen horren talde bulkatzaileak legeak ezartzen dituen urrats guztiak bete dituela behin eta berriz azpimarkatuz eta «442 herritarren eskaria kontutan hartzekoa da», argudiatuz, Aralarreko 4 eta EAren 2 bozkekin, onartuta gelditu zen. Larrain herri plataformak ere, herri kontsulta egitea defendatu zuen jendartetik «tresna egokitzat» joz.

UPNek bere esku dituen 5 bozkak, berriz, herri kontsultaren aurkakoak izan ziren «herri kontsulta lau urtetik behin egiten da eta gu gaien gainean erabakitzeko gaude hemen», adieraziz, besteak beste.

Jendartetik ere iritzi desberdinak entzun ahal izan ziren «eskaera egin duten herritarrei erantzuna eman behar zaie» eskatuz eta «herriaren iritzia jakiteari ez zaio beldurrik izan behar» adieraziz. Legearen interpretazio desberdinak ere azaleratu ziren, «Udalak herri kontsulta egitea onartzeko lukeen beharrezkotasunaz». Idazkariak horren inguruan egindako txostena argigarri suertatu zen.

Galdera

Behin herri kontsulta egitea erabaki zutenean, bere horretarako galdera ere aukeratu beharra izan zuten.

«Leitzan harrobirik bai ala ez?» galdera aukeratu zuten, proposatuta zeuden lauren artean, ordurako mahaian bakarrik gelditu ziren Aralarreko eta EAko zinegotziek. Hau ere erabateko gehiengoz hartu beharreko akordioa omen zenez, bi taldeek ados jarri behar izan zuten, hasieran EAkoek Albiñori erreferentzia egiten zion galdera nahiago zutela adierazi baitzuten «gerora zertaz behartuko garen ez dakigu» argudiatuz. Gaia argiago eta zuzenago zehazten zuela eta, azkenik taldeak ados jarri ziren, eta harrobien inguruko herri kontsultaren tramitazioan jarraitzeko moduan geratu.

TALDE BULKATZAILEA

«Benetan, demokrazian sinisten badugu, zer ariketa hobea herriari galdetu eta bere iritzia jakitea baino?»

LARRAIN

«Edozein moduz ere, 442 herritarrei erantzuna eman behar zaie eta eskaria onartu herri kontsulta eginez»

UPN

«Gai honen inguruan talde guztiek geron posizioa argi daukagu eta horren arabera erabaki behar dugu»

ARALAR

«Herri kontsultaren aldekoak gara, tresna baliagarria delako, iritziak jakin eta erabakiak hartzeko»

EUSKO ALKARTASUNA

«Eskatzaileek legea bete dute eta ez dago ezetz esaterik, beti ere eskuetan dugun txostenaren arabera »

Giro nahasi samarra

Ostiralean burutu zen aparteko udal batzarra, gai zerrendari zegokionez oparo bezain garrantzitsua zen moduan, giro aldetik ere, ez zen lasaia suertatu.

Batzarrean kezka eta ikusmin gehientsuena eragin zuen puntua harrobien inguruko herri kontsulta izan zen. Behin gaia erabakita gelditu zenean, galdeketa egitekoa alegia, UPN taldeko ordezkariak, kasu horretarako prest ekarri zuten idatzia irakurri zuten, erabaki horrekin ez zeudela ados adieraziz, harrobiaren aldeko iritzia emanez eta gai guztiekin herri kontsultak egin behar baziren, beraiek han alferrik zeudela esanez, batzar aretotik alde egin zuten, idazkariari horrelako kasuetan udal zinegotziek eskaria onartzeko duten beharrezkotasunari buruzko txostena eskatu ondoren.

Hurrengo puntua eztabaidatzen ari zela, Larrain Herri Plataformako hautetsiak, mahaian zeuden Aralarreko eta EAko zinegotzien ondoan eseri ziren, idazkariak batzarrak egoera horretan ez zezakeela aurrera jarraitu informatu zuen arte. Alkateak mahaitik jesteko eskatu zien eta iritzi adierazpen desberdinak entzun ondoren, halaxe egin zuten eta batzarrak aurrera jarraitu zuen bestelako intzidenterik gabe. ◂

www.tolosaldekohitza.info

▸ sar zaitez eskualdeko web atarira

▸ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

tolosaldeko eta Leitzaldeko
hitza

ARGITARATZAILEA: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
LEGE GORDAILUA: SS-0398-03
ZUZENDARIA: Joxemi Saizar
EGOITZA: Araba etorbidea 5, atzea, Tolosa, 20400
TELEFONOA: 943 65 56 95 **FAXA:** 943 65 00 18
POSTA ELEK.: tolosaldean@tolosaldekohitza.info
WEBGUNEA: www.tolosaldekohitza.info
TIRADA: 7.500 ale

Harpidedunei banatua ▸ 2004ko irailaren 14a, asteartea ▸ II. urtea

BERTAKO HEDABIDEAK
eta Tolosaldeko 77 gizarte eragile: (HITZAren enpresan parte hartzeko, deitu 943 65 56 95ra)

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK **udalak:** Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Baliarrain, Berastegi, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villaboria, Zizurkil
Gipuzkoako Foru Aldundia
Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila

GAURKO EGURALDIA goizez arratsaldez beroena 22 hotzena 16
BIHARKO EGURALDIA goizez arratsaldez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak, harpide egiteko...) 943 30 43 46

AGENDA ▸

DEIALDIAK

Ibarra. Izaskun izena dutenen bazkaria izango da igandean. Izene-ematea: 943 67 59 27.
Tolosa. Extremadurako Astea: Gregorio Perez eta Emilio Gañanen poesia errezitaldia eta Miguel Quintaren hitzaldia Extremadurako Santiago bideaz 19:30ean La Jaran.
Tolosa. Igandean Izaskun auzoko jaietan bazkaria egingo da Piszina tabernaren eskutik: zizkamizkak, espaghetiak, haragi gisatua eta limoizko 'mouse'a. Txartelak 15 eurotan (umeek 8 euro) salgai Piszina, Iturri, Bidebieta, Bodega eta Denak tabernetan.

ERAKUSKETAK

Anoeta. Amnesty International-en 20 argazki inguru udaletxeko bideo gelan. Argazkiak emakumeen eskubideen inguruan. Irailaren 23a bitarte.
Belauntza. Aurora Polarren espedizioa. Irailaren 20ra bitarte Kultur Etxean.
Hernialde. Leire Markinez. Ostatuan.
Tolosa. May Colmeneroren ikasleak. Aranburun.
Tolosa. Miren Gonzalez. Aranburu Jauregian.
Tolosa. Zaharkinak. Ferialekuan.
Tolosa. Txaro Medrano. Sorron koadro dendan.
Tolosa. Olivia Sanchez. Lanbroa tabernan.
Tolosa. Marisa Vivanco. Saikin tabernan.

ZINEMA

Tolosa. *El rey Arturo.* 19:30ean eta 22:30ean Leidorren. Ikuslearen eguna.

Graffitiak paretetan

TOLOSA ▸ Herriko graffitizale batzuk bere marrazkiak egiten hasi dira Iurreamendi ibiltokian, Udalaren baimenarekin

Ikusle batzuk ere izan zituzten margolariek graffitiak egiten ari ziren bitartean lehengo larunbatean Iurreamendiko ibiltokiko paretan. J.SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

San Joan jaietan eman ziren ezagutzera eta orain berriro albiste dira. Herriko graffitizaleez ari gara. 16-17 urteko zortzi gazte elkartu eta, Tolosako Udalaren baimenarekin, Iurreamendi ibiltokiko aldapan dagoen paretak margotzen hasi ziren lehengo larunbatean.

Melou, Arte, York, Besk, Snor, Dank, Etre eta Rais izenez sinatzen dituzte bere lanak artista gazte hauek.

Hip-hop musika, janzkera mota bat eta *skate*-arekin lotutako mugimendua da graffitiarena. Horma partikularrak ezin dituztenez erabili, pareta publikoetan aritzen dira. Trenbide azpiko pasabidean, Araba etorbidetik San Esteban auzora, hasi ziren, baina Udaltzaingoak ez zien utzi. Orduan udaletxera jo zuten eta orain Iurreamendiko pareta utzi die Udalak, mezu politikorik ez jartzeko baldintzarekin. Oraingoz, pareta bete arte ariko dira eta ondoren marrazki horien gainetik jarraituko dute margotzen.

«Sanjoanetan kanpoko margolari batzuk ekarri genituen Triangulon erakustaldia egitera: Irun, Azpeitia, Hendaia, Donostia... Hemengoei ere aukera eman genien. Arrakasta izan zuen Beasaingo Bicbi margolariak —Espainiako onenetakoa— lagundu zigun», adierazi dio HITZAri Xabier Tolosa *Rais*-ek.

Tolosako graffiti egile hauetako batzuk diseinu grafikoa edo artistikoa ari dira ikasten. Espraiak eta plantilak erabiltzen dituzte. Aldizkarietatik hartzen dituzte ideiak maiz. Aurrena folio batean zirriborroa egin harkatzez edo ondoren paretetara pasatzen dute. Aurretik pareta pintura normalez margotzen dute, rodiloz.

«Bi eratako graffitiak izaten dira: gure izen artistikoa azaltzen den pieza eta marrazki bat ageri den kekoa», dio Tolosak.

Laster, Mugikortasunaren Astearen barruan, haur txikiei paneletan marrazkiak egiten erakusten ariko dira.

ZORION AGURRAK ▸

URTE ASKOAN
Aitana Miner Arregi (Anoeta). 10 urte eta hamar lore. Muxu handi bat. Etxekoak.

URTE ASKOAN
Maddi Lopetegi Serrano (Ordizia). Gaur 2 urte. Zorionak aitonamonak eta etxeko guztien partetik.

URTE ASKOAN
Alaitz Irazusta (Berrobi). Gaur 18 urte. Zorionak koadrila osoaren paretik. Zahartzen ari haiz, biki!

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!